



246. zenbakia

• Abendua 2024 •

# pulunpe




Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



## Politika baldintzak eta cookieak onartuta Gotzon Barandiaran – Galbahea (2024, Susa)

Politika baldintzak eta cookieak onartuta iritsiko gara helmugara bide-seinale elebakarrak berrogei urte atzera egiteko ez da horrenbeste gogoratu behar dugunarekin alderatuz gero egun oso bakar batean jasotzen dugun gehiegizko informazioarekin egun oso bakar batean ikusten duguna baino askoz gutxiago da gogoratu beharko duguna etorkizuneko iragan horretaz



## Irailaren 16tik aurrera Esan Erran irratiko denboraldi berria martxan!

Astelehenetik ostegunera, zuzenean, goizeko 10:00etan:  
**EGUN ERO** magazina  
(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostiraletan, goizeko 10:00etan, txandakatuz:  
**EGUN ERO KANTUZ** eta **MEMORIAREN TXOKOA**  
(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostegunetan, 19:00etan,  
**BROMA GUTXI**  
(larunbatetan 20:00etan errepikapena)  
Eta, gainerakoan, Arroza sareko irratisaioak eta Zebrabidea magazina, Euskalerrria irratia, Naiz irratia, puntako musika, podcast desberdinak...

**PIZTU ESAN ERRAN!**  
FM-ko 107.9 edo  
[amezti.eus/irratia/zuzenekoa](http://amezti.eus/irratia/zuzenekoa)



## Zozketa mundiala, irratian entzuteko aukera

- Irratia zuzenean dialeko **107.9** puntuan jarri.
- Internet bidez, gure orrian sartuz: [amezti.eus/irratia/zuzenekoa](http://amezti.eus/irratia/zuzenekoa).

Eta, adi! Hiru sari zozkatuko ditugu entzuleen artean, zozketa egunean telefonoz deitzen digutenei.

**948 50 32 32**



## ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

### PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

### EMAILA

pulunpe@gmail.com

### ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte, Patxi Irurzun eta Alazne Fdez. de Muniain.

### KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

### TIRADA

1.700 ale.

### INPRIMATEGIA

Gertu.

### MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

### AZALEKO ARGAZKIA

Kurrilloak. Gurutz Urzelai.

### LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira abenduaren 9an bidalia.

## AURKIBIDEA

04

**Gaurko gaia.** *Aizarotzen handitzeak, 20 urte*

07

**Ingurumena.** *Saguzarra*

08

**Kronika.** *Denok bat jubilatuen elkarte*

10

**Albisteak.**

14

**Zer jan hura izan.** *Kaltzioa*

16

**Elkarrizketa.** *Gaztaina feria*



20

**Gure hizkera.** *Oihana*

22

**Aspaldiko kontuak.** *Berueteko lapurrak (VIII)*

26

**Ardo freskotik.** *Ezaxolakeria*

28

**Kirola.** *Andoni Gaskue*

30

**Zer ikusi.** *amezti.eus-en*

32

**Zer irakurri.** *Ultzamako Liburutegia*

34

**Jaiotzak, eskontzak eta heriotzak.** *Urria*





## Basaburuko 'toki' izatetik, eskualdeko herri koxkorrenera salto

Basaburuko udalak bultzatuta, Aizarotzen handitzea gertatu zen 2004. urtearen bueltan. Herritar gutxi batzuk bakarrik bizi ziren tokian etxebizitza berriak eraiki eta urte gutxian Basaburuko herri jendetsuena izatera pasa zen Aizarotz. Hain zuzen, biztanleriaren beherakadari aurre egiteko asmoz abiatu zuen proiektua garaiko udalak, eskualdeko zerbitzu asko arriskuan ikusten baitzituzten momentuan. Lehengo eta oraingo aizarotzarrekin elkartu gara bi hamarkada hauen ibilbidea jasotzeko.

"Aspalditik zegoen zerbait egiteko beharra Basaburuan, ikusten baitkenuen eskualdean biztanleria eta bizitzeko aukerak behera egiten ari zirela nabarmen, eta ondorio gisa, Oihanzabal eskola Larraintzarrara eramateko arriskuan zegoela". Benito Alberro Goñiren azalpenak dira. Basaburuko alkate zen egitasmoa bultzatu zen garaian, 2.000. urtearen inguruan. Baina ez hori bakarrik, Aizarozko garaiko bizilagun gutxietako bat ere bazen.

### Herritarrak erakartzeko beharrak mugituta

Udalerriaren etorkizunarekiko kezka horrekin bueltaka zeramatzaten urteak, eta testuinguru horretan sortu zen Aizarotz handitzeko aukera ere. "Aizarozko Olako nagusi batek salgai jarri zuen etxea, eta Donostiako higiezin agentzia batek interesa erakutsi zuen", gogoratu du hasiera. Agentzia hartako ordezkariak tokia ezagutzera etorri zirenean, planteamendu handiago bat egin zion garaiko udalari: hango soro batean 20 bat etxebizitza egitea. "Hasiera batean, eta gehiegi pentsatu gabe, eskaera baztertzea izan zen gure erreakzioa, baina, udalerrian geneukan giro horretan, hobeki pentsatuta, bururatu zitzaigun aukera bat ere izan zitekeela", dio.


Garai hartan, bost bizilagun bizi zi-

ren Aizarotzen, guztiak familia berekoak, eta, nolabait, 'kaltetuak' herritar gutxi batzuk izanen lirateke. "Ikusten genuen, nolabait, egokiago izan zitekeela herritar berrien etorrera toki batean ardaztea, beste herrietako bizian ez zuelako halako aldaketa edo eraginik izanen", gehitu du Alberrok. Higiezin agentziak udalaren interesa sumatzean, proiektutik atera nahi zuten etekina ere handitu zuela kontatzen du garaiko alkateak, eta negoziazio horietan aritu ziren denbora batez.

"Etxebizitza kopuruan mugak jarri genizkion enpresari, eta prezioan eta estetikan ere zenbait baldintza ere bai", dio. Alde batetik, prezio merkea izatea nahi zuten, langile batek erosteko modukoak izatea. Bestetik, bailarako beste herrien

eta etxebizitzaren itxurari jarraituz, etxe bakoitza desberdina izateko baldintza ere jarri zioten enpresari. "Haiek bat egin eta gainontzeko guztiak kopiak izatea nahi zuten, denak berdin-berdinak izatea", gogoratu du.

Bi urtetako negoziazio fasearen ondoren, lehen zirriborroa adostu zuen udalak enpresarekin. Etxebizitzaren promozioaren eta publikitatearen alorrean ere, euskal prentsan behintzat zabaltzea eskatu zion udalak, izan ere, garaiko kezka handietako bat zen hizkuntzaren ikuspegitik egitasmoak bailaran izan zezakeen eragina. Negoziazio gehienak adostuak eta itxiak zituzten legealdia bukatu baino lehen, baina baziren zenbait xehetasun zehaztea falta zirenak. "Udal hau-



Aizarotz, handitzea baino lehen





teskundeak izan ziren –ilegalizazio garaiak ziren– eta UPN sartu zen, eta enpresak, orduan, gurekin adosten ari zen zenbait xehetasun kendu egin zituen: goiko baserrietara ura eramatea, errepidea metro bat zabaltzea... guk jarri nahi genituen zenbait baldintza, azkenean, ez ziren bete”, azaldu du.

### 2004an, lehen bizilagun berrien iritsiera

116 etxebizitzaren eraikuntza zuen higiezin agentziak muga jarria, eta guztiak eraiki zituen azkenean. Etxebizitzek gain, urbanizazioko obrak ere egin zituen: zoladura, lakuaren aisialdirako ingurua, frontoia, kanala eta igerilekua, herriko plaza, inguruko pasealekua... eraikuntza lanak hiru fasetan egin ziren. “Lehen fasean egin ziren etxebizitzak uste baino azkarrago saldu zituzten, eta oso azkar joan zen dena: segituan egin zuten bigarre-na eta hirugarrena ere”, gogoratu du Alberrok. Eta, erostunen artean, denetik zegoela nabarmendu du: askok bertan bizitzeko asmoz erosi zuten etxea, baina baziren gerora berriz saltzeko eta negozioa egiteko asmoz erosi zutenak ere.

2004ko urrian iritsi ziren lehendabiziko herritar berriak, eta horien

artean zegoen Karmentxu Garces Ducar bizilaguna. “Eskualdeko Gizarke Zerbitzuen Mankomunitatean egiten nuen lan, eta hemen bizitzeko gogoz nintzen lehenagotik. Jauntsaratsen etxebizitzak modu kooperatiboan egiteko proiektu batean genbiltzan batzuk, baina azkenean ez zen atera, eta justu orduan sortu zen Aizarozko proiektua”, gogoratzen du Garcesek. Berarekin batera, lehendabiziko txanda hartan gutxi batzuk gehiago etorri ziren Aizarotza. “Pisuak ordurako bukatuak zeuden, baina ez zizkiguten giltzak ematen ura lortzeko zuten arazo bat medio”, azaldu du. Ordurako, etorkizuneko bizilagunak elkartzen hasiak ziren, hainbat asanblada egin zituzten enpresari presioa sartzeko. “Hor hasi ginen batzuk elkar ezagutzen”, dio.

Azkenean, urrian lortu zuten bizitzera sartzea. “Segituan, hurrengo hilabeteetan, jende gehiago iristen joan zen. Ilusio eta gogo handiarekin iritsi ginen guztiok”, dio. Eneko lurramendi ‘Tinto’ urte batzuk beranduxeago iritsi zen, baina biek gogoratzen dute, kanping bateko giroaren antzekoa nagusi zela lehen urteetan: bizilagunen arteko harremanak, gauzak antolatzeke gogo, parriladak eta bestelako ekimenak noiznahi... “Kasualitatez,

baina gutako asko lehenagotik erdi ezagunak ginen, eta jende asko umeekin etorri zen, edo lehen urteetan umeak izan zituzten, beraz, bazegoen sozializatorako gogo hori”, gogoratu dute.

Bizilagun berrien proiektu pertsonalak herri proiektu batekin nahasten ziren, nolabait, baina Garcesek eta lurramendik nabarmentzen dutenez, ez ziren horren oso kontziente. “Momentuan, sentsazioa zen zure proiektu pertsonala egiten ari zinela, baina, egia da segituan hasi ginela festak, inauteriak, Santa Ageda... horrelakoak egiteko elkartzen”, gehitu du. Gainera, egoera berezia zen Aizarozkoa, herritar berrietatik inork ez baitzuen bertan familia edo kuadrilarik, guztiak izanik kanpotik etorri berriak. “Besteen beharra genuen, ingurukoena, eta uste dut hirian baino errazagoa izan zela sare sozial hori egitea”, dio Garcesek.

### Aizarozko belaunaldi berriak

Aizarozko biztanle kopuruari begiratuta, nabarmena da urte gutxitan herriak bizi izan zuen aldaketa. 2004an, 10 biztanle zeuden errol-datuta; 2005ean, 43; 2006an, 118; 2007an, 139; 2009an, 160; 2011n, 178... azken kopuru horren bueltan gelditu da herria, eta Basaburuko handiena da gaur egun. “Nolabait, hiritik ihesi etorri ginen gutako asko hona, herri txiki batean bizi nahi genuelako, eremu euskaldun bateko herri txiki batean”, gogoratu du lurramendik. Hori kontuan izanda, uste du ez dela kasualitatea antzeko jendearekin topo egin izana.

Unai Kaiet Elizalde Aizarotzen jaio zen lehen haurretako bat da. “2004ko abendu bukaeran etorri ziren gurasoak hona bizitzera, eta ni apirilean jaio nintzen”, gogoratu du. Urte horretan haur gehiago ere jaio ziren herrian, eta, beste asko, jaio eta gutxira etorri ziren gurasoekin.



▲ Aizarotz, gaur egun



"Lehen urtetik ume asko geunden hemen, eta adin guztietakoak elkartzen ginen kalean jostatzeko", dio gazteak. Haurtzaroko oroitzapen oso onak ditu Aizarotzen, herri bizia zela du gogoan. Esaterako, ihauteriak estimu handiz gogoratzten ditu. "Sekulakoak izaten ziren ihauteriak: Aizarozko pertsonaiak asmatu zituzten, iratxo modukoak ziren, pertsonaia nagusiak bere txintzarria galtzen zuen eta guk aurkitu egin beharra genuen...". Guraso gazte asko elkartzeak eta hasierako ilusioak gauza ederrak ekarri zituela uste du Elizalde, eta Aizarozko identitate hori sortzen ere lagundu zuela. "Nik uste dut gaurko gazteok badugula herriarekiko lotura hori, azkenean, bizitza osoa daramagu hemen, hau da gure herria, hemen jaio eta bizi izan gara", azpimarratu du.

Urteak aurrera egin ahala, hasierako euforia giroa baretzen joan dela azaldu dute lurramendik eta Garcesek, baina Aizarotzek herri bizia izaten segitzen du. "Hasierako kanpinaren sindrome hori galdu da, nolabait, egonkortzen joan da giroa, eta hori ere ona da, normalizatzea da, nolabait", diote. Elizalde ere, sumatzen du bera haurra zenean zeuden egiteko modu batzuk galtzen joan direla. "Parte hartzea eta inplikazioa galdu dela uste dut, lehen herriko bilera ireki gehiago egiten ziren, jai batzordean jende berria sartzea ere kostatzen ari zaigu... hasierako ilusio hori falta zaigu gaurko gazteoi, agian", adie-



Aizarozko obrak ▲

razi du. Hain zuzen, aipatutako jai batzordeak antolatu zuen herriaren 20. urteurren festa, horretan dabil Elizalde. Herriko historiaren argazki erakusketa eta bideo proiektzioa, bazkari autogestionatua, wii-dance-a, txokolatada eta Los Apandadores taldearen kontzertua izan zituzten azaroaren 9an.

### Eskualdean bere tokia egiten

20 urteotako balorazio positiboa egiten dute herritarrek, eta Aizarotzen eta bailaran lehenagotik bizi zirenekin harremana orokorrean ona dela diote, nahiz eta horrelako proiektu batek sortzen dituen errezelo eta zalantzak ere sumatu izan dituzten. "Kostatu dira harreman horiek. Egia da gu kanpotik etorri ginela, eta askotan kanpokoarekiko beldurra edo gutxiespena ere egoten dela, baina hori Aizaroztik aparte ere gertatzen den fenomeno da: Beruetera goizuetar bat badoa, beti

### Aizarozko Kontzejua sortzeko bidea, bukatzeaz

Gaur arte, administratiboki, 'lugar' edo toki bezala izan da hartua Aizarotz, eta Basaburuko Udalaren gain dago bere kudeaketa. Aizarozko Kontzejua sortzeko lanean dihardute, ordea, duela zenbait urtetik.

"Indefinizio instituzionala izan dugu, eta Kontzejua sortzearen helburu nagusia gainontzeko herriekin, Kontzejuekin, parekatzea eta bertako erabakiak bertan hartzea da. Uste dugu normalizatorako ere lagunduko duela, izan ere, Basaburuan badago Udala, baina badago Kontzejuburuen Batzarra ere. Kontzeju izaera hori lortzen dugunean, bertan parte hartzeko aukera ere izanen dugu", dio lurramendik.

izanen da goizuetarra, kanpoko... eta, bestetik, hemen abantaila bat izan dugu: ia guztiak ginela kanpotik etorriak", dio lurramendik.

Alberrok ere sumatu izan du zenbaiten partetik mesfidantza puntu bat, baina hiriko eta landa eremuko bizien edo ohituren arteko talka bezala ulertu du. "Egia da zenbait gaitan ikuspegi desberdina dugula edo ez garela elkar ulertu, baina, bestetik, uste dut alor ideologikoan Basaburuarentzat mesedegarri ere izan dela, informazio berria iritsi zaigula", dio. Euskararen egoerari dagokionez, bestalde, onartzen du nahi zutena baino gehiago sumatu dela galera, baina, bada esperantzarik ere: helduen euskalduntze ikastaroak inoizko arrakastarik handiena izan du Aizarotzen aurten. "Jendeak, edo batzuek behintzat, ikusi dute hemen bizitzeko euskaraz egin behar dela. Bada zerbait. Tira, egia esan, asko da", amaitu du.



Festa batzordetik antolatzen dituzte urteko ekimen desberdinak. Irudian, bazkari autogestionatu bat ▲



## Euskal Herriko Perez sagutxoa

Saguzarrek *Chiroptera* taldea osatzen dute. "Cheir" eskua, "pteron" hegala, antzinako grezieran. Beraz, eskuetan hegalak. Hegan egin dezakeen ugaztun bakarra izanik, airea konkistatu eta sekulako arrakasta lortuta, mundu osoan ia 1.500 saguzar espezie daude deskribatuta.

Gure artean saguzar ikusienetakoa eta ezagunenetakoa, pipistrello txikia da. Zinez da txikia (3,5-5 cm) eta Euskal Herri osoan bizi da. Pitzadura eta zuloetan gorde zalea da eta orotariko habitatetan aurki daiteke, baita eremu urbanoetan ere. Herrietako farola inguruetan ikusten dugun saguzar sinpatikoa pipistrelloa da. Argiak erakarritako intsektuei segika ibiltzen da, horiek harrapatzeko sekulako akrobaziak eginez.

Horretarako punta puntako teknologia erabiltzen du: ekolokalizazioa. Muturra erabilia ultrasoinuak igorri eta oihartzuna belarriekin jasotzen du. Bere burua kokatu eta inguruko forma eta distantziak ezagutzeko erabiltzen du sistema hau, milisegundo eta milimetroko zehaztasunarekin. "Ikusi" egingo du parean zer daukan; arbola, etxea edo hainbeste desiratzen duen zomorroa! Nondik uste duzue bada, datorrela, auto modernoan aparkatzeko sentsore bidezko sistema?

Pipistrello txikiak taldean biltzen dira



▲ Saguzarra. Dave Thomas

### Pipistrello txikia (*Pipistrellus pipistrellus*)

**TALDEA:** Ornoduna/Ugaztuna.

**NEURRIA:** 3,5-5 cm.

**NON BIZI DA?** Mota guztietako habitatetan, baita eremu urbanoetan ere.

**ZER JATEN DU?** Eltxoak eta sitsak.

**BABES MAILA:** Europa mailan babestua. Beste saguzar espezie asko bezala "galzorian" edo "kaltebera" mailan daude Euskal Herriko hainbat katalogotan.

askotan, elkarren arrimoan babesba bilatuta. Babesleku hauek etxe eta baserrietako ganbaretan egoten dira maiz eta honek baditu bere alde txarrak, saguzarrarentzat noski. Sarritan saguzar koloniak akabatu edo bidali egiten dira sortu ditzaketen eragozpenengatik. Gainera, babesleku asko galtzen dituzte eraikin zaharrak eraisteagatik, berritze lanengatik eta eraikin berrietako di-



▲ Saguzarra, Mendukilon (Astitz, Aralar). Egilea, Miel Rodríguez

## Munduan atzeman diren 1.500 espezetatik 5 aurkitu daitezke Mendukilon

seinuan ez dagoelako zulo, hutsune, pitzadura edo antzekorik.

Intsektujale amorratu honek bizi izan ditu garai hobeak. Eremu urbanoetan dauzkan mehatxuez gain, nekazaritza eredu berrietako pestiziden erabilera intentsiboak, habitaten eraldaketak, aldaketa klimatikoak eta espezie inbaditzaileek mota guztietako zomorroen gain-behera larria ekarri dute, eta horrek zuzen zuzenean eragiten die saguzarrei. Eta naturak denak behar, zomorro txikiak eta ehiztari txikiak. Eta guk ere bai.

Gutxiago ikusten omen da orain... garai batean askoz ere gehiago. Hain zen ezaguna, non etxe askotan hortza botatzen zitzaion saguzarri, leihotik: "Saguzarra! Har ezan hagin zaharra!", eta segidan: "Eta ekar ezan berria, saguzar barregarria!".

Argia gutxitzen hasten den momentuan saguzarren hegaldi irregularrak behatzea gauza ederra da. Baina, belaunaldi berriek izango al dute aukerarik saguzarri hortza botatzeko?



Egoitz Alkorta Mirandak  
Argiarako. Egokitua.



### Ebro aldera, txangoa

Lodosara eta Calahorrara txangoa egin dute azaroan. Lodosan piper famatuak nola ekoizten diren ikasi zuten kontserba lantegi batean eta Calahorran erromatar aztarnak ikusi zituzten. Gainera, eskualdean ere ibilaldiak egin dituzte.

Azaroko txangoan Ebro aldera hurbildu ginen. Beti bezala bi autobusak hartu eta Lodosara aldera abiatu ginen. Hango piper famatuak nola ekoizten dituzten ikustea zen lehengo ikuskizuna, kontserba-industri bateri bisita eginez. Herria piperrez apaindua zegoen, edozein balkoietan ikusten ziren, zintzilik, lehortzen jarriak.

Piperrarekin egiten duten prozesu osoa erakutsi ziguten, poteetan sartu eta etiketa jartzearekin bukatzen zena. Bertan egin genuen hamarretakoa Calahorrara joan aurretik.

Calahorrak, Errioxako aspaldiko hiriak, toki asko dauzka ikusteko, erromatar garaikoetatik hasita. Gidariaren laguntzaz ikusi genituen hainbat leku desberdin, tartean erromatarren museoa, non Kristo aurreko 400 urtetik Kristo ondorengo 400 urtera arteko historia agertzen den eta Errioxan erromatarren garaian ze kultura mota zegoen.

Gaur egun barazki alorrez inguratuta dagoenez, museo bat egin diote barazkiari eta hori ikusten egon ginen. Bi solairu ditu, behekoa lurrari eta nekazaritzari buruzkoa eta lehen solairua, barazkiak, kontserbak eta barazkiak irauteko sistemak erakusteko.

Baita hain famatua den kafetegia "El Cielo" ere erakutsi ziguten. Zeruaren argazki oso politak ikusi genituen, inguru horretan, "zierzo" haizeak, egoa haizearekin nahastean sortzen dituen irudiei ateratakoak.

Alde zaharra ikusteko tartea ere izan genuen Azagrara bazkaltzera joan aurretik.

Bazkaria, gosea kentzeko modukoa, eta jan ondoren bingoa aritzeko eta dantza egiteko lekua antolatu zigun hostel Venecia jatetxeak. Iluntzean autobusak hartu eta etxera etorri ginen egun ederra pasatako sentsazioekin eta hurrengoan pentsatzen.


#### Inguruan ibilaldiak

Gure herrietan barna prestatutako ibilaldiak egiten jarraitzen dugu, orain arte hilabeteko azken astelehenetan egin ditugu.

Azken biak aipatuko ditugu. Urriaren 28an Lantz ikustera joan ginen, bertakoek prestatutako ibilaldia eginez. Ordu pare batekoa izan zen eta leku politak ikusi genituen galtzina egiteko labe bat eta gerrako bunker bat tartean.

Azaroaren 25ean, Lizaso inguruan ibili ginen. Gorontz eta Olanotik gertu pasata, Gelbentzura joan ginen, handik itzultzeko Orgi oihana zeharkatuz. Oso atsegina izan zen.





Zorionak  
Zorionak!



Luar Iribarren,  
azaroaren 14an urte bat

Beuntzako  
Juanito Yaben



Zoriondu zure laguna  
Pulunpen!  
pulunpe@gmail.com





## Nafarroa Saria irabazi du Dialeko Azkenak *Esan Erran* irratiko dokumentalak



Tokiko euskarazko komunikabideen sarea den Tokikomek bere sariak banatu ditu azaroaren 22an, ostiralarekin. Aurten, lehenengo aldiz, Nafarroa Saria ere banatu dute eta *Esan Erran* irratiko 25 urteko ibilbideari errepasso egiten dion *Dialeko Azkenak* dokumentalak jaso du.

78 euskarazko tokiko hedabide biltzen ditu Tokikom sareak. Eta, haren parte gara Amezti, *Esan Erran* irratia eta Pulunpe.

Urtero, bazkideen artean, kazetaritza lanik onenak saritzen ditu Tokikomek eta aurtengo sarietan saritua izan da *Dialeko Azkenak, Esan Erranek 25 urte* dokumentala. Epaimahaiak azpimarratu duenez, oso ondo jasotzen du garai batean Nafarroako toki askotan pil-pilean zegoen euskarafobia. "Euskara hutsezko irratia bultzatu zuten herritarren, irratiko lehenengo esatarien, ondoren pasatu zirenen, orduko euskara teknikarien, entzuleen eta kolaboratzaileen iritziak oso ongi daude jasota dokumentalean".

Bi Ahizpak Bideoko eta Latasako herritarra den Aritz Gorostiagak grabatua eta montatua, irratia ren sorrera kontatzen du eta ibilbideari errepasso ematen dio. Oraindik ikusi ez baduzue amezti.eus webgunean aurkituko duzue dokumentala ikusteko esteka.

Nafarroa sariarekin batera, beste hiru sari banatu dira. Sakanako aldikaria den Guaixek azalik onenaren saria jaso du *Matxismoa ari du* goiburu duen aldizkariaren azalari esker; Edukirik Onenaren Saria Azpeitiako Gukarentzat izan da. Maialen Etxaniz kazetariak aldizkariaren maiatzeko zenbakirako *Gelditu dira inprentaren makinak* izenburupean egindako erreportajea nabarmendu du epaimahaiak. Ikus-etzuzneko Onenaren Saria, berriz, Antxeta irratia rentzat izan da, *Uhin inklusiboak* lana tarteko.

Sari banaketa Artikako Maria de Maeztu Kultur Etxean izan da azaroaren 22an. Gainera, hitzaldiak ere izan dira, AEKko Lurdes Etxezarretaren eta Xabier Gartziaeren eskutik; eta, elDiario.es-eko Ramón Argelina-rena, besteak beste.





## Hiru talde atera dira Ultzamaldeko AEK euskaltegian

Euskalduntzeko eskolak ematen ditu AEK euskaltegiak Ultzaman, Odietan, Atetzen, Lantzen eta Anuen. 2024-25 ikasturterako taldeak osatuak dituzte honezkero, eta Mattin Cazabon eskualdeko arduradunak jakinarazi duenez, hiru maila desberdin atera dira aurren: A1 maila, B1 maila eta C1 maila.

Taldeak osatuak dauden arren, ikasturtean zehar ikasle berriak hasteko aukera ere izanen dute, eta talde berriak ere osatu litezke. Horretarako, [mattin-k@aekeus](mailto:mattin-k@aekeus) helbidera idatzi edo 948 60 47 04 edo 688 874 303 telefono zenbakietara deitu beharra dago. Hauek dira, momentuz osatuak dituzten taldeen ordutegiak:

**A1 maila:** astelehen eta asteazkenetan, 16:00etatik 18:30era.

**B1 maila:** astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 19:30era.

**C1 maila:** asteazkenetan, 16:30etik 19:30era.



# HEMENGOA, ZURETZAKO








**Kontsumitu eta saldu km 0  
Nafarroako elikagaiak, Nafarroan**

[www.localtokioa.es](http://www.localtokioa.es)



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua  2036

 INTIA

**948 013 040**  
circuitoscortos@intiasa.es



## Asisko Urmenetak 'Ni ez naiz sorgina' dokumentala bukatzeko diru bilketa abiatu du



Odietan sorginkeria egotzita hil zituzten herritarren kasuarekin batera beste hainbeste bildu zituen **Sugarren Mende** komikian 2020an. Lan hartatik sortu zen hipotesian sakontzeko osatu nahi du dokumentala.

Dokumentalaren grabaketak amaitzen ari dira baina hori ahalik eta txukunen egiteko finantzazioa behar dute eta horretarako crowdfunding kanpainia bat abiatu dute, alegia, herritarrek diruz laguntzeko aukera zabaldu dute Goteo plataformaren bitartez. Interesa duenak esteka honetan lagundu dezake: <https://eu.goteo.org/project/ni-ez-naiz-sorgina>. Azaroaren 19tik abenduaren 28ra, **Ni ez naiz sorgina. Suak errerik, keak gorderik dokumentalari** doaitza egiten ahal zaio. (Sartu estekan goiko QR-aren bidez).

Hauxe da dokumentalaren ideia nagusia, webgunean azaltzen den bezala: "Duela 500 urte gertatu zen Auritzen lehen exekuzio kolektiboa sorginkeriatatik: Nafarroan aurkitu berria zen sekta satanikoa, eta kondanatu zigor eredugarria ezarri zitzaion: urkamendian akabatu ondoren gorpua erretzea. Sarraski hark hasiera eman zion mende oso bat iraun zuen jazarpenari, non milaka pertsona akusatu eta bidegabeki kondanatu zituzten". Egiten ari den jazarpen horren berirakurketan eta sorginkeria iruditeri faltsua deseraikitzen lagundu nahi du dokumentalak.

"Era berean, bidegabekeriaren orbana konpontzen, saiatzen ari gara; Zugarramurdiko plazan jarritako ikono iraingarria kentzen lagundu dugu, Senperen errepresaliatuen izen ona berreskuratzeko prozesuan parte hartu, edota Anotzibarren sorgina barik inkisidorea erretzen den antzezpena iruditan hartu dugu", azaltzen da webgunean.

2025eko ekainean 500 urte beteko direnez lehenbiziko talde erreketak egin zutela, Auritzen aurreproiektzioa egin nahi dute parte hartzaileekin. Baina Zinemaldian aurkeztu nahi dute gero. Donostiako zinema jaialdia ezagunari aurkeztu diote dokumentalaren egitasmoa.

### Inkiszioa, Europako eliteak jazarpenarako asmatua

Aipatu bezala, **Sugarren Mende** komikia da dokumental honen jatorria. 2020an argitaratutako komikirako- Larrainzarren ere aurkeztu zen- historiografia lan sakona egin zuen Asisko Urmeneta komikigileak eta berak aipatu duen bezala, lan hipotesia koherentea eta berri-tzailea atzeman zuten orduan.

Zein da hipotesi hori? Europako orduko testuinguruan, Europa modernoa sortzen ari zen horretan, euskaldu-

nek jazarpen politikoa pairatu zutela eta funtzio errepresibo horrekin, geopolitikagatik, inkisizioa asmatu zutela. Asisko Urmenetaren hitzetan, **Berrria** egunkarian, sekta satanikoa edo sorgintza demoniakoa Europako elite intelektualek asmatu zuten. Sophie Houdard Sorbonako irakasleak ere, dokumentalerako elkarrizketatua, horrela azaltzen du: "Europa modernoa erakitzen ari zen, eta momentu hartan botereak etsai bat behar zuen. Potentzien arteko muga lerroak garbitu nahi zituen bere absolutismo politiko eta kulturala ezartzeko». Sektaren eta deabruaren figura orduan sortzen dela dio, eta gaur egungo terroristaren figura-rekin alderatu du.

Hain zuzen ere, komikirako baliatu zituzten Houdard bezalako iturrien egileengana jo dute aldi honetan **Ni ez naiz sorgina** dokumentalaren egileek. Euskal Herriko ikerlariengana ez ezik —Peio Monteano (Nafarroako Artxiboak), Joldan Jimeno (Zuzenbide Historikoa, NUP), Gurutze Ezkurdia (EHU), Amaia Nagusia (NUP)—, kanpokoengana ere joan dira: William Monter (Chicagoko Unibertsitatea, AEB), Sophie Houdard (Sorbona III Unibertsitatea, Paris), Diarmaid MacCulloch (Oxfordeko Unibertsitatea, Erresuma Batua) eta Natalia Silva Prada. Kanpokoekin bideodeiaz aritu dira orain arte, baina, haien bulegoetan, aurrez aurre eta irudia zainduz grabatu nahiko lituzkete, eta, horregatik besteak beste, behar dute diruz laguntzea.

### Dokumentalaren izena

Ni ez naiz sorgina izanen da dokumentalaren izena eta horrela azaldu du egileak **Berrrian**: "Sumario anitzetan agertzen da: 'Ni ez naiz sorgina, eta ez naiz sekula izan'; 'ene lana egiten dut, izerdiz eta garbiki'; 'ez naiz zuk erraten duzun hori'. Behin eta berriz agertzen da".







## Arrakasta handia izan du MTB eskolak

Bere bigarren edizioan 24 ume aritu dira, irailetik azaro bitartean. Joan den udaberrian hasi zen ekimena, maiatzetik ekainaren erdialdera arte egin zen lehenengo ikastaroarekin. Ondoren, udazkenekoa etorri da, irailaren erdialdetik azarora bitartean egin dena. Hori da eskolaren asmoa, urtean bi ikastaro egitea. Eskola sortzearen ideia guraso talde batena izan zen, MTB Basaburuko sortzailea den Manu Alvarez Beruetearekin hitz egin eta martxan jarri zuten.







## *Elikadura orekatu bat izatearekin batera, kaltzioa eta halako osagaien garrantzia ikasiko dugu atal honetan*

Esan Erran irratiko Laia Llopen Zer jan hura izan kolaborazioa berreskuratu dugu. Joan zen ikasturtean medikuntza txinatarraren laguntzarekin urtaroei begira jarri eta garai bakoitzean zer elikagai jan ikasi genuen. Hori utzi gabe, ikuspegi orokorrago batetik elikadura orekatu bat izaten eta bizitzako etapa bakoitzean zer komeni zaigun azalduko digu orain. Atal honetan arreta berezia jarriko dio kaltzioari.

Hurrengo orrialdean elikaduraren mahaia ikusiko dugu. Mahai abangoardista bat izanen da: hanka bat potoloagoa eta besteak orekatuko duten mahaia. Txintxetarik ez izaten saiatuko gara, hau da, azukrerik edo elikagai prozesaturik ez hartzen. Eta, egunero eta, ahal dela, bazkari eta plater guztietan, lau taldeetako elikagaiak izaten saiatuko gara. Bazkari bakoitzean ez bada, egunean zehar guztietatik hartzen saiatuko gara. Eta, hemendik aurrera, zer? Laia Llopi galdetu diogu.

**Hau oinarria da, zer gehiago jakin behar dugu?**

Hau oinarria da eta hemendik aurrera beste elementu batzuekin jolastuko dugu. Gure beharren edo ezaugarrien arabera gauza batek edo beste batek hobe eginen digu. Adibidez, batzuetan edo batzuei barazki mota zehatz bat gure elikaduran gehiago egotea komeniko litzaiguke. Edo elementu bat, esate baterako, kaltzioaz hitz egin nahiko nuke gaur.

**Kaltzioaz askotan hitz egiten da**

Haurrak hazten ari direla edo emakumeon kasuan menopausia garaian sartzen garenean, edo orokorrean zahartzen ari garela kaltzioa garrantzitsua dela buruan

badugun zerbait da, jakina da. Baina, kaltzio hori nondik hartu galdezten dugunean esnekiak aipatzen dira beti. Esne baso bat. Baina, aldi berean, beti gaude zalantzetan esnea ona edo txarra den, batzuei mukiak eragiten die, beste batzuek intolerantzia dute... zalantza asko dago gai honekin.

**Haurtzaroan eta zahartzaroan kaltzio falta izateko arrisku gehiago dugu, baina bizitzan hartzen baldin badugu hobeto iritsiko gara zahartzarora, ezta? Nola zainduko dugu hori?**

Bai, garrantzitsua da biltegiak izatea. Menopausian, adibidez, es-



Laia Llop eta Garazi Zabaleta sukaldean



trogenoek behera egiten dute eta, horregatik, behar handiagoa dugu. Dena den, ez da bakarrik kaltzioa hartzea, baizik eta nola egiten dugun gure gorputzak kaltzioa asimilatzeko, kaltzioa xurgatu dezan. Prozesu batzuk gertatu behar dira.

1. Lehenengo kaltzioa hartu behar dugu. Nola?

- Esnekiak: ardi esnekiek behi esnekiek baino kaltzio gehiago dute. Ondutako ardi gaztarekin hartu dezakegu, adibidez, Berueteko eta Goldarazko gaztekin.

- Almendrek ere kaltzio asko dute.  
- Barazkien artean: brokoliak.  
- Haziak: sesamoa da kaltzio kantitate handien duen hazia.  
- Lekaleen artean: txitxirioek.

2. Kaltzioa hartu ondoren, nola xurgatu?

- D bitamina behar dugu horretarako.  
- Ariketa fisikoa ere oso garrantzitsua da.

## Elikadura orekatuaren mahaia

Lau hanka dituen mahaia bat irudikatu dezakegu. Hanka bakoitza elikadura talde bat izanzen litzateke:

### 1. Proteinak

Lekaleak, arrautzak, haragia, arraina, fruitu lehorrak eta esnekiak.

\*Soja: Hemen ez da ohikoa izan baina orain edonon aurkitu dezakegu eta proteina iturri handiko lekalea da.

### 2. Karbono hidratoak

Zekaleak, tuberkuloak, almidoak (patata, batata, garia, ogia...).

\*Azukrea duten elikagaiak ere talde honetan daude. Baina horiek mahaian sartu ohi diren txintxetak izanzen lirateke, mahaia desorekatzen dute.

### 3. Barazkiak

Hanka honek potoloagoa izan behar du. Plateraren erdia baino gehiago hartu behar dute. Harvard platera: plateraren erdia, barazkiak; laurden bat, proteinak; beste laurdena, karbono hidratoak.

### 4. Frutak

Bestearekin batera, beti, fruta. Gosaltzeko edo postre moduan.



## Errezeta proposamena

Sesamoa aipatu dugu, baina hemen oso garrantzitsua da haziaren barruan dagoena, horregatik, tahina oso ona da: birrindutako sesamo krema bat da. Tahina daramaten bi errezeta proposamen:

**Berenjena pateia sesamekin:** Berenjena labean erre. Gainera, hotzarekin labeko elikagaiak oso onak dira. Berenjena egosi, azala kendu eta birrindu. Tahina, limoia, baratzuri gordina, komino, piper hautsa eta olio txorrotada bat. Baba ghanush deitzen da eta Libanon asko jaten da. Oso ona da. Barazkiei bota edo ogiarekin jan dezakegu. Ezti pixka bat ere botatzen ahal diogu.

**Humusa:** txitxirioak eta tahina darama, beraz primerako kaltzio iturria da. Gosari baterako, tostadan edo entsaladari eta barazkiei botatzeko.

Txitxirioak egosi eta bi koilarakada tahin jarri, limoi txorrotada bat, baratzuri gordina bat eta gatza. Nahi izanez gero, kominoa edo piper beltza ere bota diezaiokegu. Eta olio pixka bat ere, baina ez da beharrezkoa, bakarrik lehorra gelditu bazaigu.



Humusa. Robyn Anderson Flickr-en



## *"Oso ongi atera da lehen Gaztaina Feria, eta honekin segitzea da asmoa"*

Urteak dira Nafarroako Gobernuak bultzatuta gaztainadi zaharren berreskuratze lanean eta bertako gaztaina barietateen inguruan lanketa abiatu zutela hainbat eskualdetan. Basaburua ere lanketa horren parte da, eta, azaroan, bultzada handi bat eman diote egitasmoari I. Gaztaina Feria antolatzearekin. Balorazioa egin dugu Xabier Azpiroz Garapen Batzordeko kidearekin eta feriaren bultzatzailearekin.

### **Noiz eta nola sortu zen Basaburuan gaztainaren inguruko lanketa?**

Duela lau zapabost urte sortu zen gaztainaren bueltako mugimendu hau. Garai hartan, Nafarroako Gobernutik bertako barietateen ikerketa txiki bat egiteko ideia zegoen, galtzen ari zirelako, eta teknikari baten laguntzarekin hasi zen historia hau berpizten. Guk, orduan, basozainen bidez egin genuen lanketa: Basaburuko jende helduarekin elkartu ginen, gaztainadi zaharrak non zeuden galdetzeko, zein barietate eza gutzen zituzten... egia esan, nahiko berandu iritsi ginen, jakinduria horren zati handi bat ordurako galdua zegoelako, baina behintzat zegoen informazioa bildu genuen.

### **Bilketa lan horretan, topatu zenituzten bertako barietateak?**

500 lagin baino gehiago bidali ditugu azken hiru urteetan Iruñera analitzera, eta hortik, momentuz, Nafarroako 18 gaztaina barietate desberdin atera dira. Lanketa hau penintsulako beste zenbait tokitan –Galizian edo Asturiasen, adibidez–, Frantzian, Italian eta Portugalen egina dute lehenagotik, eta uste genuen hango barietate batzuk errepikatuko zirela. Bada, ez. Badirudi hemengo barietateak hemen bakarrik daudela eta badutezenbait berezitasun besteekin alderatuta. Tira, egia da Euskal He-

rri mailan oraindik ez dela ikerketarik egin, eta hor bai, pentsatzen da errepikatuko direla, baina beste toki horietan, behintzat, ez.

### **Eta, Basaburuaren kasuan, zein da emaitza?**

Momentuz, bost gaztaina barietate identifikatu ditugu Basaburuan, baina ez dira Basaburuan soilik agertu, beste zenbait eskualdetan ere badaude. Bost horietatik bi Nafarroa mailan oso zabaldua

“Badira gaztaina ekoizten duten enpresa txiki eta kooperatibak hemendik kanpo, eredu direnak”



Herritar askoren interesa piztu zuen larunbateko mahai-inguruak ▲





daudenak dira: Txertagorria eta Hostabeltza.

### **Ikerketa lanaz gain, herritarrekin eta gaztainadiak dituztenekin ere aritu zarete elkarlanean, ezta?**

Bai, bilaketa horretan jende askorekin egon gara, eta herriko jendea ere hasi da bere gaztainadiak berreskuratu nahian, kezka horrekin. Araban, Apilaizen, duela 35 bat urte esperientzia bat izan zuten: gaztainadi baten berreskurapena abiatu zuten teknikari baten laguntzarekin, hitzaldiak egin zituzten, txertaketa ikastaroak... bada, hemen, esperientzia hori izan dugu eredu, eta antzeko egitasmoak egin dira Nafarroan zehar, tartean, Basaburuan. Hainbat hitzaldi, ikastaro eta tailer antolatatu ditugu, eta interesa pizten joan da, bola pixkanaka handitzen.

### **Aurten, pauso bat gehiago eman eta Basaburuko I. Gaztaina Feria antolatu duzue. Zein izan da ekimen honen helburua?**

Herritar askorigaztainarekiko interesa alde nostalgiko batetik piztu

zaio, gaztaina zaharren berreskuratzearen alde egin nahi dute, bere horretan duten balioagatik. Baina, beste batzuk, gaztainak fruitutarako landatzeko prest azaldudira, ekoizpenari begira interesatudira. Horiek ere jakin nahi dute zein diren hemengo barietateak, ekoizpenari begira egokienak zein izan daitezkeen, eta abar. Hori oso garrantzitsua iruditzen zaigu, uste dugulako ekoizpenaren alde hori ere bide bat izan daitekeela, bestela zaila izanen delako mantentzea. Horregatik, Gaztaina Feriarekin erakutsi nahi genuen ekoizpenaren alor hori ere posible dela, beste toki batzuetan dagoeneko ari baitira. Gaztainaren inguruan ekonomia garrantzitsua sortu dute Galizian, Portugalen, Extremaduran... esperientzia txiki batzuk ekarri nahi genituen, gaztainaren ekoizpena bizitzeko irtenbide bat ere izan daitekeela erakusteko.

### **Larunbatean alde teorikoa izan zenuten, batik bat, ezta? Zer moduz joan zen?**

Bai, aipatutako esperientzia horietako batzuetako kideak izan geni-

tuen larunbateko mahai inguruan. Leongo El Bierzo eskualdetik etorri zen Isidro Alvarez Diez hango esperientzia kontatzera, Ipar Euskal Herriko gaztainadi zaharren berreskuratze lanean ari den Gilles Texier ere izan zen, Nafarroako Gobernu-ko Mikel Diaz teknikaria ere bai... ongi joan zen ekimena, herritar dezente bertaratu zen. Igandean, asmoa zen ferian esperientzia desberdinak eta gaztainekin egindako produktuak erakustea.

### **Lehen feria izan da aurtengoa, aurrera begira segitzeko asmoa duzue?**

Bai, lehendabiziko feria hau indarrez hasi nahi genuen, eta oso ongi atera da, beraz, segituko dugu hurrengo urteetan ekimenarekin: esperientzia gehiago ekartzen, jakinduria zabal-tzen... ideia asko ditugu, eta inguruko herrietan ere asko dira gaztainadiarekin zer bait egin nahi dutenak, hori oso pozgarria da. Eta, gaztainondoak landatzeko prest dauden herritarrak ere hurbildu zaizkigu, beraz, segituko dugu lanketarekin.



▲ Jauntsaratsen egin dute lehendabiziko Gaztaina Feria

### **Zozketa mundiala, irratian entzuteko aukera**

- Irratia zuzenean dialeko **107.9** puntuan jarri.
- Internet bidez, gure orrian sartuz: **amezti.eus/irratia/zuzenekoa**.

Eta, adi! Hiru sari zozkatuko ditugu entzuleen artean, zozketa egunean telefonoz deitzen digutenei.

**948 50 32 32**







Auzako bestak. Mus txapelketako txapeldunak eta txapeldunordeak



Auzako pestak



Bazkari galegoa Etulainen



Bazkari galegoa Etulainen



Imoztarrak Arriaundin, Larunben



Virginia Iragik bidalitako argazki ederra





Etxalekuko Oihan Alde etxea (izena, txiki-txiki, fatxadan): oihan aldera eraiki zuten, jakina!



Lizasoko pestak



Erripako pestak



Erripako pestak



Erripako pestak





## Maite ditut, maite, gure bazterrak... zer ikasia ematen digutenean

Lehengoan, karriketan barrena ibiltzeko konbitea egin zigun Alazne Fdez de Muniain erasoarrak: 'karrika' hitza boz gora aldarrikatu zuen, gure jolasean berriz txertatu dezagun. Bistan dago, gaugeru, Ultzamaldeko euskarak izugarri erakartzen duela gure kolaboratzailea. Bigarren erreportaje honetan 'oihana' izanen dugu solasgai.

**Oihaneko** pagoak blai aideratuz hiru elai. Ostadarraren harian dira hirurak pausatu nahi. (M. Laboa, 1985)

Xorieri mintzo zen mintzo zen errekarri **oihaneko** zuhaitzeri ta zeruko izarreri [...] (E. Martikorena, 1993)

Ohartu zarete zer belztu dudan kantutotan? **Oihaneko pagoak blai**, hau da, oihaneko pagoak bustirik daude, pagadia heze dago. Bigarrenak diosku txoro bat naturari mintzo zaiola, besteak beste, **oihaneko zuhaitzei**.

**Oianzelai** Atezko leku-izena da, Hiri-berrietik hurbil da baina, izatez, Beratsaingo dermioa da. Toponimoari begiratuz, oihana edo arboladia nagusi den lekua dela erakusten digu, eta ez da aldapatsua, zelaia baizik, laua, ordoki. Ondoz ondooan **bagoaldea** toponimoa dugu, hots, **bagoak** ('pagoak', euskara batuan) dauden tokia.

Hasteko, gure alderdian begi-bistan ditugun bi leku-izen ekarriko ditut:

alde batetik, **Oianbarren** ugaldea edo erreka, Alkotzen. Oroit gaitezen toponimoak guztiz deskriptiboak direla, orduan, itsumustuan pentsa liteke ugaldetto hau oihanaren erditik igarotzen dela, oihanean barrena: baina, egiazki, **bettiko oihanaren** sinonimo da: 'barrena'k 'beheitikoa' erran nahi zuen lehen.




Utzamatik Basaburura goaz, eta eskola parez pare: **Oihanzabal**. Harizti ederra, inondik ere. Ikastetxeak toponimo hori ohoratzeke hautatuko zuen izen hori bere garaietan. Hala ere, zirriku batetik begiratu nahi nuke, ea norbaitek darabilen 'oihan' hitza hemengo adieran, alegia, es: 'bosque'. Lepoa eginen nuke 'oihan' hitza

eskolaren izena aipatzean baizik ez dela entzuten, esanahiari erreparatu gabe, izen exotiko baten gisan fosilizatu dela. Izan ere... zer irakasten zaigu eskolan? 'Bosque' adieraz-



teko 'basoa' dela forma zuzena. Eta zuzena bada, bai, baina ez bakarrik! Zazpi probintzietako lautuan naturalki erabiltzen zen 'oihana' deserriratu dute, arrotz bilakatu dute. Gauza on anitz esleitzen ahal zaio euskara batuari, neronek zor diot nire euskalduntasuna. Baina onar dezagun eredu estandarra, eskoletan nahiz hedabideetan nagusi dena, **erkidegozentrista** dela: hegoaldezentrista, eta bereziki EAEzentrista.

Honetaz eta hartaz ari ginela, ikasle batek, hausnarrean, zera bota zidan: "Horren adibide «Guarderío de Medio Ambiente» da, Nafarroako Basozainak!" Halaxe da, bai. Nafarroako Gobernuak EAEko eredu hartu zuen oinarri. 'Basozain' hartu beharrean, tokikoa den 'oihanzain' harrezakeen, edo 'mendizain', besterik gabe. Berriz ere diot, paisaia linguitikotik aunitz ikasten baita!





Ikasleei hau euskaratzeko eskatu nien: «Los lobos del bosque [...]». 10etik 9k "Basoko otsoak" idatzi zuten. Gehienak nafarrak dira, gehienak euskaldun berriak, eta gehienei oso bitxia gertatu zitzaion "Oihaneko otsoak" entzutea. Gehienei, diot: izan ere, ikasle dudan itsasoar batek arrunt ongi toleratu zuen nire proposamena, nahiz eta hark "Mendiko otsoak" itzuli zuen, oker ez banago. Ez da arraroa bereizketa eza; horretaz bere garaian ohartu nintzen hainbat imoztarri «Me voy al bosque» itzultzeko eskatu nielarik. Zera erantzun zidaten:

Muskitz: *Oyána. Banaye oyanéra.*  
Etxaleku: *Oyaneá nayé, mendiré.*  
Goldaratz: *Banií mendié.*



Zenbaitzuek, beraz, 'oihan' eta 'mendi' kontzeptuak bereizten dituzte, baina beste batzuek guziri 'mendi' esaten diote. Nolanahi ere, bereizten dituzten horien pertzepzioan 'bosque' da *oyana* eta 'monte' *mendie*. Inoiz ez 'basoa' hemen. Bueno... zurrutean dabilenari bai, basoa gehixeago betetzeko! Horri bai, horri deitzen baitiogu guk 'basoa', edalontziari, alegia!

Hala ere, norbaitek pentsa lezake: Eta Basaburua, Urbasa...? Edo gure mendietako basurdeak eta basahuntzak... izen horiek 'basa' hitza gordetzen dute. Hala da, bai: baina 'bas(a)-' hitza adjektiboa da kasu horietan, es: 'salvaje, silvestre'. Adiskide batek aitortu dit orain hartzen diola zentzua etxeko ttikiek hain gustuko duten kantu honi:

**Oihanetik** badoaz animaliak handiak ta txikiak, animaliak.  
**Oihanetik** badoaz animaliak handiak ta txikiak, animaliak.

Sugea arrastaka dabil  
Txantxangorria hegan doa  
Barraskiloa motel doa  
Basurdea saltoka dabil  
(*Ene Kantak*, 2011)

Nafarroako oihanik galantena bezala deitzen da lagun hori: Irati. Lehen, kanta hori aditzen zuenean Iratik ez zuen entenditzen zergatik, oihana aipatuz, hemengo animaliak diren protagonista. Orain badaki 'oihana' ez dela (bakarrik) urruneko jungla bat, amazoniarrak edo Kongokoa: gure arboladiak ere oihanak dira, Ene Kantak-ekoek bikain adierazi duten bezala.

Dolu dut ikusirik gure mendien eta parajeen jolasa itzaliz doala, gero eta ezezagunagoa zaigula. Horrengatik, OIHAN hitzaren aldarrikapena da hau, 'baso' bezain euskara batua, euskara zuzena eta oso gurea delako. Begira diezaigun inguruari: *Oianaundi* (Aritzu, Olague, Urritzola-Galain), *Oianondo* (Gaskue), *Oianeko Bidea* (Eguarats, Lantz), *Oianbarreneko Zubia* (Alkotz), *Oianberri* (Etxaleku), *Oianburu* (Ziaurritz), *Oianillun* (Arraitz-Orkin), *Oianzabal* (Beramendi, Udabe, Urritza) eta abar, eta abar.

Guretik landa, Nafarroa osoan lekukoturik dago 'oihana': *Oianzulo* (Leotz), *Oianandia* (Abartzutza), *Oianburu* (Leitza), *Oianbazterra* (Aribe), *Oianartea* (Jaurrieta), *Oianpe* (Saldias), *Oianaldea* (Zuasti), *Oianbeltz* (Baztan), *Oianberoki* (Artzibar), *Oianbizkar* (Bera), *Oiangaina* (Zizur), *Oianlarre* (Galar), *Oianmuga* (Es-

partza-Zaraitzu), *Oianttoa* (Irañeta), *Oianxarreko Malda* (Luzaide), *Oianzoko* (Olaibar), *Oianbidea* (Bidaurreta), *Oianaldapa* (Otsagabia)... Bitxikeria gisa, erronkarieraz 'oihana'ri *oxanea* deitzen zitzaion: gaur egun toponimoak baizik ez dirau bizirik, bai eta Izabako aterpe bati esker ere.

Euskal Herri Hizkeren Atlasean (EHHA), zeinak duela hiruzpalau hamarkadako euskal hiztunen datuak dakartzan, arrunt ongi ikusten da bereizketa: 'oihana' dugu bi Nafarroetan, Lapurdin eta Zuberoan; eta Gipuzkoan eta Bizkaian 'basoa'. Zorroztu dezagun *zooma* Ultzamaldean:

Alkotz: *oyána*  
Suarbe: *oyán*  
Etxaleku: *oyána, arboldí*  
Beruete: *oyán*  
Igoa: *oyán*

Amaia Apalauzaren tesian (2012) ere hainbat adibide bilduta daude, hala nola Itsasoko hau: *Ikusi duzte elurre oianin?* Hau da, "Ikusi duzue elurra oihanean?". Edo beste hau, non Apalauzak berak kontatzen duen Basaburu Nagusiko ekialdeko herriek lotura handia izan dutela eta oraindik ere badutela Ultzamarekin. Tirabirak ere izan dituzte, ordea: muga-mugan egotearekin, Ultzamako azienda Oroketako oihanera sartu ohi zen askotan, eta haserrealdi ugari izaten zituzten.

Horrenbestez, aberastu dezagun gure euskara, tokikoari ere lekua eginez. Oihanean barna ikusiko dugu elkar, adio!



Alazne Fdez de Muniain







### Ilarregiarra hil zuten

Zazpigarren atalean luze mintzatu ginen indultuaz eta indultuaren alde egindako lanez. Pentsa, urkamendia altxatzeko Iruñeko zurginek, batek bestearen atzetik, ezezkoa eman zuten, ez zutela lan horren zama inola ere hartuko. Azkenean, beharturik egin behar izan zuen horietako batek. Beharko egin, Diktadura zegoen Espainian.

#### Urkamendia

Heriotza ordua hurbildu ahala, hiru anaien beldurrak eta saminak gora egin zuen, salbatuko ote ziren, salbatuko ote ziren, Infernura ez ote ziren zuzenean joanen. Hori zuten kezka larriena; eta laguntzeko zituzten apezek, baietz, baietz, Jainkoak barkatu zituela.

Gauerdian, gazteena hasi omen zen gainerakoekin bildu nahi zuela eta bildu nahi zuela. Honen erreguak, azkenean, urrikaldurik edo, goizeko bostetan utzi zieten momentu bat elkarrekin egoteko. Ia ez omen zioten deus esan elkarri;

ez jakinki zer esan! Elkarren arteko begiradekin dena esana zegoen! Dena esana gelditu zen!

#### Eta hiruak besarkatu zirenean... zer esan?

Ondoren, Marcelo Zelaietak meza eman zuen. Hiru anaiak beren lekuetatik, belaunikaturik entzun zuten meza eta denak hartu zuten komunioa.

Ondoren Eletak eman zuen meza. Eta bukatzeko Maistarrenak, Kartzelako kapilauak, azken errezoak.

Argitzen hastean, goizeko zazpitan eraman zituzten hiruak kar-

tzelako patiora, urkamendia altxaturik zegoen patiora. Bertan, bi garrote zeuden jarriak.

Lehen garrotean Bernardo jarri eta hil zuten. Ondoren, bigarren garrotean Juan Martin; eta, berriz ere, lehenbizikora itzuliz, Jose, anaia gazteena, 21 urtekoari kendu zioten bizia.

Eta kartzelako lekurik altuenean bandera beltza airean.

Familiakorik ez zen hurbildu. Nola? Ama gaixoak nahikoa eta gehiegi egin zuen bezperan Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren egoitzan. Andrea, berriz, haurdun zegoena, nola ausartu? Lotsaz, ikareriaz betea eta bihotz erdiratua zegoen-eta!

#### Azken kontuak

1925eko otsailaren 2a zen, astelehena. Eta 8etan San Lorenzo Parrokiako Apezak, eta segizioak gurutzera zut zutela joan ziren kartzelako atera. Berehala atera zituzten hiru zerraldoak eta Iruñeko kanposantura abiatu ziren denak, Goñi Lazkanotarrei lurra ematera. Lerroan, bata bestearen ondoan ehortzi omen zituzten.

Egun horretako Iruñean ziren eginkizun ofizial guziak hurren baterako utzi zituzten.

*Hurrengo Pulunpen segituko dugu, ez baitzen exekuzioarekin dena bukatu.*



Iruñeko kartzela. Hemen bukatu zen dena. ▲



Hernandorena y  
rnandorena y fa-  
rnandorena, 2'25;  
echea y familia,  
curra y familia,  
y familia, 0'50.  
ña y familia, 2;  
rra y familia,  
Mariezurrena y  
Gastearena y fa-  
lida, Párroco, 5;  
milia, 1.  
s.

**N IRAIZOZ**

lain, presbítero,  
presbítero, 5;  
Maitin Gueren-  
arren, 5; Josefa  
no, 0'50; Micaela  
Ramón Iraizoz y  
Goicoa, 1; To-  
Carmen y Mar-  
5; Juan Barre-  
José Ramón Te-  
José Manuel Ma-  
1; Juan José Ga-  
sé Apezteguía y  
Lizaso y familia,  
; Felipe Echeve-  
nisco Goñi y fa-  
Diano y familia,  
na y familia, 1;  
y familia, 1; Jua-  
1; José Miguel  
rancisco Arce y  
yarzun, 2; Anto-  
lia, 5; Francisco  
Pascasio Olagué  
Espinal y fami-  
n, 0'50; Antonio  
ia, 4; Carlos Es-  
vaz, 1; Dion-  
encio Estanga,  
tia y familia, 5;

Vista pública, ante la Sala de lo Ci-  
vil, de la apelación entablada en el  
pleito de mayor cuantía seguido en  
el Juzgado de primera instancia de  
San Sebastián, entre la «Compañía  
de Maderas S. A.», demandante-ape-  
lada y la «Compañía Pesquera Gui-  
puzcoana», sobre pago de cantidad.

Informarán los letrados señores  
Usandizaga y Pradera.  
Procuradores señores Revestido y  
Martinez.

# Gacetilla

Ayer al medio día sufrió en la  
Plaza de la Constitución un ataque  
epiléptico un joven llamado Joaquin  
Navascués, el cual fué auxiliado por  
un guardia de seguridad y dos tran-  
seuntes que lo recogieron y lo acom-  
pañaron a su domicilio.

## NO IMPORTA

que se hayan terminado las batas de  
8 pesetas, por esto mismo y como fin  
de temporada, ofrecemos a nuestra  
clientela las mejores que nos quedan  
a los siguientes precios:

Corte de bata para señora	5'50
Corte de bata para idem	7'50
Corte de bata primera	8'50
Corte de bata Fantasía	10
Corte de bata Extra	13'50

Extensa colección de pañería para  
trajes, gabanes y gabardinas.

Antigua «Iruña», San Antón, 9 y 10



Ayer comenzaron las obras de am-  
pliación de la carretera que da acce-  
so del Paseo de Sarasate a la Plaza  
de la Constitución, reforma muy ne-  
cesaria y hace tiempo muy sentida.

EL MEJOR calzado del mundo se  
vende en casa Llorente. Las medidas  
y arreglos se hacen para cuando el  
cliente lo desea.

Una familia piadosa, costea tres  
misas en sufragio de las almas de  
los tres ejecutados de Beruete: se di-  
rán, dichas misas en los Carnelitas  
el martes a las cinco y media y seis  
y la tercera el viernes a las siete y  
media.

REALITA.—Para tejados sin te-  
jas. Ven con la carne. Mecá-  
ca de M. LÓPEZ PAMPLONA.

Por la guardia civil de Aoiz ha si-  
do detenido y puesto a disposición del  
Juzgado, el pastor de Llédena, Mar-  
tín Enecoiz Moriones, por haber ame-  
nazado de muerte con un cuchillo ca-  
briero a su convecino Bernardo An-  
drés.

Ningún café compete con la marca  
EL PATO por su bondad y aroma y  
gran fuerza. La casa de más produc-  
ción y venta. Simeón Tejada, LO-  
GRONO.

## Casa REPARAZ

▲ Hil eta hurrengo egunean Diario de Navarra ohar hau atera zuen norbaitek, ez jakin nork, hiru beruetarren arimen aldeko mezen abisua emanaz. Iruñeko karmelitetan izan ziren hiru mezak.

- **Hiztegia**
- **Atala:** Gauza asko esan nahi ditu hitz honek. Hemen, parte, sección edo capítuko litzateke. Ez nahasi atala(ga) rekin. Atariaren trankarekin. Lehen, etxe guzietako sarre-rako ateez izaten zuten atala(ga).
- **Urkamendia:** patíbulo (urka-bilurra, garrotea edo dena delakoa jartzeko altxatzen den toki gora bat).
- **Samina:** pena, aflicción.
- **Ez jakinki:** no sabiendo que decir. Gisa honetako esaerak ibili izan dira eta oraindik ere ibiltzen dira, nahiz eta eskoletako ikasleei ez diedan nik inoiz entzun. Hizkuntzaren pobretzeak etenik ez du.
- **Kapilaua:** capellán.
- **Garrotea:** Gaizkileak exekutatzeko Estatu zenbaitek erabiltzen zuten makina gisakoa.
- **Bihotz-erdiratu:** partido el corazón.
- **Ehortzi:** lurperatu. Ultzamaldean oraindik bizirik dagoen hitza da.



▲ Joazarnea (Txokolateroren etxea) Ostatua izaten zen eta hemen antolatuta omen zuten dena.

**Zozketa mundiala, irratian entzuteko aukera**

- Irratia zuzenean dialeko **107.9** puntuan jarri.
- Internet bidez, gure orrian sartuz: **amezti.eus/irratia/zuzenekoa**.

Eta, adi! Hiru sari zozkatuko ditugu entzuleen artean, zozketa egunean telefonoz deitzen digutenei.

**948 50 32 32**

Esan Erran  
**IRRATIA**  
107.9 FM





# Berueteko

## lapurrak (VIII)

**Eta hiruak besarkatu zirenean... zer esan?**

### Zerua lipar batez

*Joxe eskaka eta eskaka, anaiekin egon nahi zuela, besarkatu nahi zituela. Azken agurra eta besarkada eman gabe ez zuela hil nahi.*

*Noizbait, bere espa bete dezan, baiezkoa eman diote. Goizeko bostak eskas dira eta elkartu dituzte hiruak areto batean.*

*Lehenik Joxe atera dute eta hurrenak, banan-banan, beste bi anaiak. Elkar begiratu eta zut segundo bi-hiru, zer egin eta zer esanik ez balute bezala!*

*Bernardo da lehen pausua ematen duena eta ondoren beste biak. Besarkada batean estutzen dira.*

**-Ene Jesus! -Bernardok.  
-Gaur azken egune. -Joxek  
-Konfesatu zate? -Juan Martinek.**

*Eta ez dakite zer gehiago esan. Mutu, baino beren buruak beste nonbaitera daramatzate.*

*Juan Martinek, aurreko udan, Arrarasko Otsolan egosi zuten txondorraren azpiko aldean, zaintza lanetan ikusten du bere burua. Joxe, bere amarekin dago, **Txibar-neko** behitiko ate ondoan, elizari eta herriko etxeei begira. Buruan iltzatu zaio aurrean duena. Eta Bernardok, bere burua Guardia Zibilekin, **Mittoneko** bordondoan, Berueteko herria ikusteko keinua egin eta zibilek galarazi zioteneko une hura datorkio burura, baina oraingoan bai, Berueteko herria du aurrez aurre, etxe ilunez josia, Eliza eta Txibarnea argi zuri batek edertzen dituela.*

*Betiko izozturik gelditu den unea, betikotasunezko halako lasaitasun bat sumatzen dute; betiko uste, bakoitzak buruan duen agerpena epel goxoa ez zaiela pasatuko. El-*

*karturik betiko!*

*Zaintzaile bi hurbildu zaizkie eta beren ziegetara joateko agindu.*

*Eta betikotasun hura hausten da, inork jakin gabe nola. Zerua zuten eskuz ukitu eta Zerua desagertu zaie.*

*Mundu honetan aurkitu ez zuten Zerua, beste munduan zuten erdietsiko.*

*Literatura egin gabe, ezinezkoa izanen zaio inori jakitea gazte haien burutik zer pasatu zen momentu hunkigarri hartan. Eta horretaz, nik literatura egin behar izan dut. Hil aurreko momentu hartaz ez nintekeen isilik pasa.*

**Oharra:** Mittoneko borda jarri dugu. Mittok Txarbori saldu ziona eta gero, honek, Martin Arraratsi (Orain Garaikokoa) Amabi dermioan, Aldazko bide ertzean.

### Hiztegia

**Lipar batez:** momentu batez.

**Espa:** Ansia, afan (hemengo ere bada hitz hau).

**Aretoa:** Sala, recinto.

**Zut:** de pie.

**Zaintza:** cuidado, custodia.

**Unea:** momentua.

**Betikotasuna:** eternidad.

**Agerpena:** aparición.

**Ziega:** calabozo, celda

**Erdietsi:** lortu. Erdietsi hitza hemengo ere bada: erditxi.

**Hunkigarria:** conmovedor, emocionante.



*Herria eguzkiaren argitan, lainoz koroatua. Goñitarrek azken orduan herria zuten gogoan, eta ama, jakina. Tamalez, lainotik gauera pasatu ziren dohakabeak!*



**deceuninck**



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m<sup>2</sup>k) **0,85**



**JASANGARRIAK ETA EFIZIENTEAK**



**ENERGIA AURREZTEA**



**SEGURTASUNA ETA  
SENDOTASUNA**



**ERABATEKO ISOLAMENDUA**



## Ameskeriak utzi beharko ditugu

Hona hemen **zuzeu.eus** agerrian aurkitutako hainbat artikuluren titularrak. Eta Xean opatutako hari bat. Denetarik dago:

- Iñaki Iurrebasok orain 2-3 urte egin duen doktore-tesiak euskal-

gintzan eraikirik zegoen traman-kulu handia hankaz gora jarri du. Beste gezur aunditz ere salatu beharko dugu.

- Kolonizazioaz ere hitz egin beharko dugu ba!

- Bai, ameskeria guziak utzi eta gure etorkizunari heldu beharko diogu. Eta batez ere ezaxolakeria mortal horretaz, zer nahi duzu esatea!




 Txurdan



EUSKARA

### 12 Gogoeta Iñaki Iurrebasoren Doktore-Tesitik

12 gogoeta Iñaki Iurrebasoren doktore-tesitik - Iñaki Iurrebasok doktore-tesi ezin interesgarriagoa egin du. Uste dut tesi honekin gure orain arteko uste eta ekinbide batzuk beste modu batera ikust...

 Txerra Rodriguez   2023-07-18



EUSKARA

### Iñaki Iurrebaso: "Murgiltze Eredua Ez Den Beste Ezerk Ez Du Funtzionatuko"

Iñaki Iurrebaso: "Murgiltze eredua ez den beste ezerk ez du funtzionatuko" - Hezkuntza eta Hizkuntza jardunaldian hartu zuen parte Iñaki Iurrebasok apirilaren 22an. Oso ekarpen mamitsua eta trinkoa...

 JJ Agirre  10  2023-05-30



EUSKARA

### Helduak, Ikas Zazue Euskaraz Idazten

Helduak ikas zazue euskaraz idazten - Gaur egun, euskaldunen hizkuntza maila eskasak euskararen erabilera mugatzen du. Bertzalde, bi erdaren eragina gero eta handiagoa da, bereziki pantailen bidez, e...

 Nikolas Gofri  1  2024-10-30



EUSKARA

### Minorizazio Gorrian

Minorizazio gorrian - Euskara gaur, datu demolinguistikoen irakurketa oinarri hartuta Hizkuntza-politika eraginkor bat pentsatzeko eta abian jartzeko, beharrezkoa da helburuak egoki finkatzea, e...

 You reposted



**Nestor Esteban**  
@NEScaloni

Euren hizkuntza politikekin etorkizuna erdaraz marrazten diguten bitartean, apurrak banatzen dizkigute isilik mantentzen gaitez. \*Euskalgintzaren menpekotasun politiko eta ekonomikoa, gero eta handiagoa. #Oldarraldia

11:02 AM · 2024 urr. 31 · 80 Views

## EUSKARA

Hemen ingelesez IZENA DUEN GUZTIA DA kolonizazioa - Honen bidez dei egin nahi diegu euskaltzale guztiei gure herriaren "amerikanizazioaren" aurka borrokatu dezaten. Azken urteotan ugaritu dira...

# 2024-2025 PROGRAMAZIOA

ORDUA	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
22-06	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika		
06-08:30	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Musika	Musika
08:30-09	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala		
09-10						Landaberri	Osasun Etxea
10-11	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero Kantuz Memoriaren Txokoa	Gonagorri	Gonagorri
11-13:30	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Musika	Musika
13:30-14	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero Kantuz Memoriaren Txokoa		
14-14:30						Hitza Jolas	Kontatzera Noazu
14:30-15	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika		
15-16						Egonarria	Lur eta Murmur
16-17	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Adi	Gramofonoa
17-18						Reggae Fever	Z-Kluba
18-19	Gelditu Makinak	Oroimen Histerikoa	Ahapatik	BTN	Patiyoko Atzuak	Musika	Musika
19-20	Desgazea	Ad Libitum	Revolutionary Grooves	Broma Gutxi		Berria FM	Kinka
20-21	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero Kantuz Memoriaren Txokoa	Broma Gutxi	Otea Lili
21-22	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Haus of Beats	Sateliteak

▶ Gure saio propioak, Esan Erran irratiakoak

▶ Zebrabidea, Arrosa sareko magazin propioa

▶ Euskalerrria Irratia

▶ Gure musika

▶ Euskadi Irratia

▶ Berria Podcastak

▶ Arrosa sareko beste irratiaren programak (Naiz irratia, Argia Podcastak, Antxeta irratia, Arraio irratia, Kontrako Eztarrixe, 97 irratia, Txapa irratia, Gure irratia)





### Ultzamako oihartzuna frontoian

Gutxi falta izan zitzaion Peio Etxeberriari lau eta erdiko txapela buruan janzteko. Bigarren finala zuen, jarraian, baina aurrekoa ez bezala, buru izan zen partidaren erdia baino gehiago. Azkeneko zatian, ordea, Unai Laso esnatu zen eta markagailua irauli zuen. Etxeberria zenoztarrak ondoan izan zuen Andoni Gaskue Larrantzarko atzelaria eta laguna.

Aulkian, botilero, Andoni Gaskue txikitako laguna eta ASPE enpresako kidea. Eta, armarrietan, Ultzamako hainbat herritar ere ikusi genituen. Beste askok etxetik jarraituko zuten. Baina Ultzamako oihartzuna nabaria zen Bilboko Miribilla frontoian. Peio Etxeberriak txapela eskuan izan zuen partidaren zati handi batean. Baina bukaeran eskapatu zitzaion. Unai Laso zuen parean, bera ere nafarra eta lehenengo lau eta erdiko txapelaren bila. Eraman zuen 19 eta 22 irabazi ondoren. Etxeberriak onartu duenez, "opariak egin ditut gakoa ziren une batzuetan eta horregatik ihes egin dit txapelak". Irrist egin zioten bi bolea aipatu ditu, batez ere. Hala ere, jakitun ere bada "joan zen urteko lau eta erdiko finalarekin zer ikustekorik ez" duela izan.

Baina lau eta erdiko finala atzean gelditu da eta aitortu duenez "hurrringo finalean pentsatzen ari da dagoeneko". Helburua, binakako txapelketa du orain eta Etxeberria egungo txapelduna da Zabaletarekin batera. Aurten Martijarekin osatuko du bikotea. Etxeberria aurrera begira jartzen den bitartean guk une batez luzatuko gara iraganean. Horretarako, Andoni Gaskueri eskatu diogu laguntza.

Txikitatik lagunak dira zenoztarra eta Larrantzarkoa. Umetan bikotea osatzen zuten maiz, Larrantzarko Buruzgain pilota eskolan. Gezurra badirudi ere, orduan Etxeberria atzelari aritzen zen eta Gaskue aurrelari. Orain, betiko lagunak, pilotan kideak dira berriz ere, ASPEko

“ Peio ezin izan zuen finala borobildu baina harro egon behar du ”



enpresakoak biak. Eta, duela bi urte, Etxeberriaren botileroa ere bada Andoni Gaskue.

**Ultzamarrendako polita da zuek biok elkarrekin ikustea lau eta erdiko finala bezalako une garrantzitsu batean. Zuek nola bizi duzue barnetik?**

Guretako ere berezia da. Ez gara bakarrik ASPE enpresako kideak, txikitatik ezagutzen dugu elkar, elkarrekin hasi ginen jokatzeko eta hainbat urteren ondoren berriz ere elkartu gara, orain, pilota profesionalan. Peio ematen ari den maila ikustea eta

berak niregan konfiantza izatea bere botileroa izateko berezia da. Zer esanik ez horrelako txapelketa batean, lehenengo mailan. Bata kantxan eta bestea botilero, elkarrekin beste final bat jokatzeko oso polita izan da.

**Buruak, kontzentrazioak, psikologikak garrantzi handia hartzen du horrelakoetan. Guztiok ikusi dugu Peio sakea egin baino lehen hartzen duen tarte hori. Zuk txapa jaurti bitartean pilotaz ahalik eta gutxien hitz egiten diozu?**

Horrela saiatzen naiz. Nik badakit zer den hori, partida aurretik duzun



tentsioa eta urduritasuna eta nik behintzat nahiago dut partidaren inguruan ezer ez hitz egitea, eta gauza bera egiten saiatzen naiz. Ordu asko pasatzen ditugu elkarrekin astean eta une asko ditugu partidaz eta inguruko gauzez hitz egiteko, orduan lan hori aurretik egiten dugu. Txapa botatzen dutenean detaile batzuk gogoratzen dizkiot Peiori eta orduan lanean jartzen gara buru-belarri.

### **Eta, partida, eserlekitik, nola bizi izaten duzu? Ez da toki erraza...**

Beti esan dut aulkitik partida bizi-tzea dagoen lekurik okerrena dela. Asko sufritzen da, urduritasun asko izaten da eta, aldi berean, pilotariari beste irudi bat eman nahi diozu, konfiantza eta lasaitasuna transmititu nahi diozulako. Gaur egun, alde psikologiko horri garrantzi handia ematen zaio eta ikusten ari da oso garrantzitsua dela. Horretan saiatzen gara. Azkenean, pertsona guztiak ezberdinak gara eta oso garrantzitsua da pertsona ezagutzea. Zorionez, guk oso ongi ezagutzen dugu elkar. Badakigu nola hitz egin behar diogu elkarri, bestea ez urduritzeko. Baina oso-oso zaila izaten da aulkitik lasaitasun irudi hori erakustea.

### **Nola ikusi zenuen partida? Izugarrizko aldea izan zen joan zen urteko lehenengo final horrekin konparatuta. Beste Peio bat ikusi genuen.**

Bai. Ni, barruan, asko haserretzen naiz. Baina horrekin adi egon behar duzu pilotaria ez urduritzeko. Gainera kamerak dituzu ondoan, hori beti duzu buruan, baita jarri diguten mikrofono hori ere. Beharbada, Peiori joan zen urteko finalean finalak inguratzen duen guztiak pixka bat gai-netik pasa zion, eta finalak bat-batean ihes egin zion, konturatu gabe, eta, batez ere, disfrutatu eta lehiazteko aukerarik izan gabe. Horrek



kirolariari ikaragarritzko pena ematen dio. Galdu, galdu dezakezu, baina behintzat lehiatuz. Aurten bare ikusi zaio. Berak esan duenez, joan zen urtean lasai zegoen eta aurten, berriz, urduriago zegoen, eta hori berarendako normalagoa dela. Hasiatik oso-oso ongi ikusi zitzaion. Ezin izan zuen txapelketa eta finala borobildu baina uste dut oso harro egon behar duela joan zen urtetik hona erakutsi duen mailarengatik, baina, batez ere, urtebetean egoera irauli duelako: final bat handi samar gelditzetik hurrengo urtean ia-ia txapela eramatera.

### **Beno, lau eta erdikoa pasa da eta binakako txapelketetan murgildu zarete. Promozio mailan Salaberriarekin bikote izanen zara zu. Nola ikusten duzu?**

Uste dut Salaberriarekin oso gustura jokatu behar dudala. Debutatu nuenetik beti izan ditut gogoak berarekin jokatzeko afizionatu mailan oso harreman ona egin genuelako eta elkarrekin askotan jokatu eta entrenatu dugulako. Bestalde, aurten maila asko dago. Beste urteetan ez bezala aurten lehenengo maila eta bigarren maila artean gelditzen diren pilotari asko sartu dituzte txapelketan. Adibidez, Zabala, Dario, Agirre pilotariek ari naiz. Beraz, txapelketa



**Andoni Gaskue:**

**Bata kantxan eta bestea botilero, elkarrekin beste final bat jokatzeko oso polita izan da**



pelketa gogorra izanen da. Guk gure maila ematen badugu eta gurea ongi egiten badugu aukerak izanen ditugu txapelketa on bat egiteko eta ea, duela bi urteko txapelketan bezala, behintzat finalean egotea lortzen dugun. Saiatuko gara.

### **Udan Altunarekin bikote jokatzeko aukera izan zenuen San Mateo txapelketan ordezkari sartu zinelako. Zer balorazio egiten duzu urte honetaz?**

Lehenengo urteko txapelketa zaila izan zen. Lesio batetik nentorren eta ezin izan nuen prestatu nahi bezala. Ongi hasi nintzen baina gero gaizki bukatu genuen eta buruz burukoan ere ez ziren gauzak espero bezala atera. Baina udan buelta eman genion. Ez dut arazorik izan fisikoki ezta eskuetan ere, eta hori garrantzitsua da kirolariendako. Jarraipena izateko eta zuriz janzteko aukera asko izan ditut eta horrek konfiantza ematen du eta uda bukaeran, zuk esan bezala, San Mateotan Altunarekin jokatzeko ordezkari gisa sari oso polita izan zen. Partida polita izan zen nahiz eta ezin izan genuen irabazi Artolak eta Salaberriak buelta eman baitzioten partida bukaeran. Baina uste dut aurten lehenengo urtean baino hobe iristen naizela, oso ongi prestatu naiz. Orain zuriz jantzita maila on bat ematea tokatzen da.





## Hilabete honetan ere, askotariko gaiak

Hemen da negu giroa, hotza, euria... aukera paregabea amezti.eus-era igotzen ditugun edukiak etxeko gozoan ikusi eta entzuteko. Hilero bezala, irratiko hainbat kolaborazio eta irratsaio noiznahi entzun ditzakezue bertan sartuta, baita hainbat elkarrizketa eta Egun Ero Kantuz eta Memoriaren Txokoa saioak ere.

Azaroan irratan izan ditugun kolaborazioen artean daude, Eneko Iurramendik eta Mikel Lakastak historiako zenbait pasarteren inguruan egiten diguten Eztena eta badena saioa. Aurtengoan, hurbi-lean ditugun hainbat animalia-aren inguruko xelebrekeriak ekarri dizkigute momentuz, eta azaroaren 5eko saioan, astoa izan zen protagonista. Beheko QRan duzue entzungai saioa.



Eztena eta badena, astoari gorazarre

Kolaborazioekin segitzeko, feminismoarekin nolabaiteko lotura duten beste bi atal ditugu Egun Ero magazinean: Kataren kuir musika txokoa eta Izaskun Altunaren Izan ginelako, bagara. Laguntasunaren inguruko hausnarketa egiteko baliatu du hilabete honetako kolaborazioa Katak; eta Altunak, berriz, historiako beste emakume garrantzitsu bat ekarri digu: Emilia Pardo Bazan.



Kataren kuir musika txokoa, laguntasunaz

Izan ginelako, bagara: Emilia Pardo Bazan



Esan Erran irratiko edukiak segituz, ostiraleko gure bi saioen errepaso egiteko ere aprobetxatuko dugu tarte hau. Azaroaren 15ean, Yaiza Mendibe ultzamarra izan genuen Egun Ero Kantuz saioko protagonista. Dakizuenez, bere bizitzako 10 kanta kuttunen bidez, ordubeteko musika-elkarrizketa saioa egin genuen. Bestetik, azaroko Memoriaren Txokoa saioan, elkarrekin batere zerikusirik ez



Yaiza Mendibe izan genuen Esan Erraneko estudioetan, Egun Ero Kantuz saioa grabatzen



duten bi efemeride izan ditugu hizpide: Hitler eta Franco diktadoreak Hendaian elkartu zirenekoa izan zen azaroaren 8ko saioa; eta sexu langileek Londresen eliza bat okupatu zutenekoa, azaroaren 22koa.

Egun Ero Kantuz,  
Yaiza Mendibe



Memoriaren Txokoa,  
Hitler eta Franco  
Hendaian



Memoriaren Txokoa,  
Sexu langileek eliza  
bat okupatu zuten  
Londresen





### Nabarmendutako albisteak eta elkarrizketak

Hilabete honetan albisteren bat nabarmentzekotan, autobonbo pixka bat egin behar genuke. Izan ere, azaroaren 22an Artikan banatu ziren Tokikom sarietan, Nafarroa Saria jaso genuen! Dialeko Azkenak, Esan Erran irratia 25



urteotako ibilbidea jasotzen duen dokumentala izan da saritua, Nafarroako errealitatea eta garaiko euskarafobia ongi islatzeagatik. Noski, Bi Ahizpak Bideo proiektuko Aritz Gorostiagari eskerrak ematea dagokigu egindako lanagatik, eta baita dokumentalean parte hartu duen jendeari ere, haien bizipenak kamararen aurrean kontatzeagatik...

Eta, nabarmentzeko elkarrizketen artean, Aizarozko Kontzejua sortzeko hainbat herritar ematen ari diren pausoen inguruan Eneko lurrarendiri egin geniona aipatuko dugu. Aizaroztarrak azaldu zigunez, kontzeju propioa lortzeko azken pausoa soilik falta da, Nafarroako Buletin Ofizialean argitaratzea, alegia. Urteotan egindako bidez aritu zitzaigun Egun Ero saioan lurrarrendi.







### *Kultura-ihesaren plana*

Hilero bezala, Patxi Irurtzun Utzamako liburuzainak liburutegiko nobedadeak eta ostiral kulturalen inguruko berriak ekarri dizkigu atal honetara.

#### **Neguko zinema**

Joan den azaroan ekin genion Neguko Zinemari, eta lehen saioetan ikusle ugari eta proiektatu ditugun filmen harrera bikaina izan dugu. "El 47" filmak bihotza ukitu zigun eta txalo artean agurtu zuten ikusleek. Auzotarren arteko borrokari eta elkartasunari buruzko film hunkigarria da, hurrengo Goya sarietan sarituenen artean egonen dena, ziur. Haren atzetik etorri ziren *Dragoi-Jagolea* haurrentzako filma, *El vasco* komedia, *20.000 especies de abejas* (lehiakide gogorra izan zuen lau t'erdiko finala, ultzamar bat txapela lehiatzen ari baitzen, baina hala ere lagun batzuk elkartu ziren pelikula ikusteko) eta, abenduan, *Black is beltza*, Fermin Muguruzak zuzendutako animaziozko filmen lehen atala (bigarrena ere proiektatuko dugu hemen-

dik gutxira) izan genuen. Hilabete honetako programazioa honako izenburu hauekin osatuko da: *La contadora de películas* (abendua 8) film ederra da, eta bertako protagonista, Maria Margarita zaharra, Txileko herri bateko istorioen kontalari bihurtuko da, bertako biztanle gehienek ezin baitute zinemako sarrerarik ordaindu. *El primer día de mi vida* (abendua 15), gizon misterioitsu batek beren bizitzetara zentzu berri bat emanez hondoa jo duten pertsonen laguntzen dien. *Erlauntza* (abendua 22), landetxe batean asteburu zoro eta tirabiratsu bat kontaktzen duen komedia, ezkondu gabeko agur festa batean. Eta *Hooper oilaruntzia* (abendua 29), txikiendako marrazki bizidunetako filma, besteek onartua izateko borrokan dabilen abenturazale "ezberdin" bat protagonista duena.





## Ostiral kulturalak


Ostiral kulturaletan gure gonbidatu finkoetako baten falta sumatzen genuen: Oskar Alegria, bere film bikain bakoitzarekin lagundu diguna: *Emak Bakia*, *Zumiriki*, eta orain *ZINZINDURRUNKARRATZ*, izen film ahoskaezina, hiru elementu nagusirekin: ahaztutako bide bat, kamera zahar bat eta Paolo izeneko asto bat. Hiru elementu horiek osatzen dute filma, ibilbide poetiko bat da beste garai bateko memoria batetik barrena, haren zati batzuk baino geratzen ez direlarik. Oskar Alegria, bere super-8az hornitua, aitona-amonak Artazuko mendietan ibilitako bidezidorretara itzuliko da, jada existitzen ez den mundu baten oihartzunak erregistratzera. *ZINZINDURRUNKARRATZ* abenduaren 13an proiektatuko da Larrainzarren eta Oskar Alegriak bere Paolarekin batera bizitako abenturak kontatuko dizkigu (portzierto, gure bizilaguna da Paolo, Aroztegin bizi baita). Ane Martijaren azaroaren 29ko kontzertuaren ondoren, abenduaren 20ean zuzeneko musikari heldu genion berriro, oraingoan beste talde euskaldun batekin: Bandatze, Rolan Garces buru duen taldea izan zen Larrainzarren, eta folk, blues eta rockaren artean mugitzen den errepertorioarekin, azken urteotako euskal rockaren proposamen deigarrietakoa bihurtu dena aurkeztu zigun. Eta Eguberrietako oporraldi betean sartuta, urtea agurtzeko bi proposamen: umeentzako itzal- eta txotxongilo-tailerra, Zurrunka Teatrotoren eskutik (27an). Bertan, ziu-rrerik antzerki-modu zaharrena izango denarekin esperimintatu ahal izango dute haurrek, gure arbasoek bizi ziren kobazuloetako hormetan itzalak egiten zituztela esaten baita (alde aurretik




inskripzioa egin behar da hemen: [liburutegia@ultzama.es](mailto:liburutegia@ultzama.es), jardueraren ordutegiaren berri emateko); eta Amati zonaldeko abesbatzaren Gabonetako kontzertu tradizionala, Alkozko elizan izango dena hilaren 27an, 19:00etan. Eta hila-betean zehar Periko Zunzarrenen argazkien eta Mari Carmen Arandigoyenen akuarelen erakusketa ikus daitezke Larrainzarren Bentan: "Guk argazkiak egiten ditugu, margotzen dugu, begiratzen dugu... baina zuen begirada falta da...", diote artistek.

## Ihes-Plana

Hainbeste kultur jarduerarekin ia ez zaigu lekuri geratzen liburuak gomendatzeko, -horretarako gara liburutegi bat- baina hor doa azken egunetan jaso dugun liburuetako baten iruzkin txiki bat, Agustín Ferrer Casas egile nafarraren *Ihes Plana* komikiarena: "1936. urtea, Madril hesitua izateko arriskuan dago, eta gobernu errepublikarrak Valentzia hirira joatea erabaki du. Hiriburuaren aurkako bonbardaketek gobernu neurriak hartzera



behartu dute eta, besteak beste, Pradoko Museoko artelanak handik ateratzea erabaki du arriskuan dagoen ondare historiko eta artistikoa salbatzeko. Kamioi-taldeen Valentziara eramango dituzte artelanak eta, han, zaharberitu eta babestu egingo dituzte, aldi baterako, bederen. Pradoko Museotik ebakuatutako koadroen artean Mona Lisa dago, Leonardo da Vinciren tailerrak egindako Giocondaren bertsioetako bat. Hura lortzea eta arte-merkatari bati saltzea zaila da, baina ez ezinezkoa".

 Patxi Irurzun



# 2024ko urria

## 2024ko urrian gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

### Jaiotzak:

#### **BASABURUA** **Udabe-Beramendi**

Ekaitz Barbajero Culleré, Jon Ander eta Mariaren alaba, urriaren 8an jaio zen.

“ Aupa bat gure gurasoei! ”

#### **ULTZAMA** **Arraitz**

Sara Diez de Ultzurrun Larraioitz, urriaren 26an sortu zen, Aitor eta Mirariren alaba.

### Ezkontzak:

Guk dakigula ez da ezkontzarik izan.



▲ Danel bere gurasoekin

### Heriotzak:

#### **BASABURUA** **Beruete**

Miguel Lopez Garro, **Iribarneko** nagusia, urriaren 3an hil zen, 84 urtetan.



▲ Miguel

Jose Joaquin Mikeo Arrarats, **Errando-xeneko** nagusia, urriaren 16an hil zen, 66 urtetan.

#### **ULTZAMA** **Auza**

Gloria Gastearena Txurruka, urriaren 18an hil zen 98 urtetan.



▲ Gloria

#### **Arraitz**

Maribel Ilarregi Villanueva, **Beheko Bordaxuriko** etxeakoandrea, urriaren 17an hil zen 81 urtetan.

#### **Eltzaburu**

Elisa Zilbeti Erbiti, **Aldattegiko** etxeakoandrea, urriaren 11an hil zen 93 urtetan.



▲ Elisa

“ Beti izanen zaituztegu gogoan. ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK  
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



**KARIKOLAR**  
ELEKTRIZITATEA

**722 766 835**

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A  
KENTZEA**

**FATXADAK  
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA  
(IMPERMEABILIZACIONES)**

**DAVID ELIZONDO PINTURAK**  
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA  
ETA  
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA  
KONPROMEZURIK GABE**

**678623866**

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com







CAJA RURAL  
DE NAVARRA

ACCIÓN SOCIAL



# 2024ko Zozketa mundiala



x3

Asteburuko bidaiak  
2 lagunentzat




x10

Txerri gizen



x20

Bazkari edo afari bikoitz  
(inguruko ostatuetan)



x10

Axuri eder

30 saskitto, 25 gazta, eta... beste anitz sari!

[amezti.eus](http://amezti.eus)